

## UPV/EHUn IKERKETA BULTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2017):

### III. MODALITATEA: UNIBERTSITATEA-GIZARTEA IKERKETA PROIEKTUAK

#### Akatsak zuzentzeko prozedura:

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oiniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko otsailaren 20ko onespenezkin, UPV/EHUn Ikerketa bultzatzeko laguntzen deialdia (2017), III. Modalitatea: Unibertsitatea-Gizartea ikerketa proiektuak argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaeren azterketari ekin dio deialdiak ezarritako irizpideekin bat datozela egiaztatzeko asmoz:

- a) Ikerlari nagusi eta kideek baldintzak betetzen dituztela.
- b) Deialdian zehaztutako dokumentazio osoa helarazi izana.

Egiaztatze honen arabera,

**ERABAKI DA**, onartzen diren eta alderdiren bat zuzendu behar duten eskaeren behin-behineko zerrenda web atarian argitaratzea.

Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute, **2017ko maiatzaren 22tik ekainaren 2ra arte**, aipatzen diren aldaketak egiteko. **Zuzenketak egiteko epea amaituta, akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak baztertuko dira.**

Zuzenketak Erregistroz epe barruan bidali beharko dira halaberrez, baita Posta bulegoetara agiriak gutun-azal irekian eramanda ere.

Leioan, 2017ko maiatzaren 19an.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza